

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2012ko azaroaren 14a. IX. urtea. 2.433. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Xabier Olarra Itzultzaile eta idazlea

«Itzultzailea ez dago autoreak idatzi duena hobetzeko, idatzitakoa du muga»

Idazle eta itzultzaile tolosarrak Euskadi Saria eskuratu zuen atzo iluntzean, Bilbon, Arantzazu Royorekin batera itzulitako 'Jakobian eraikina' izeneko libururengatik

Olarraren iritziz itzultzailearen meriturik handiena «egilea imitatzean datza, baina aldi berean, itzultzailearen hizkuntzan molde egokiena ematean, noski» 02



→ **Bihar hasiko dira Babarrun Asteko ekitaldiak.** Igandera bitarte Tolosaldeko jaki preziatuenetako bat izango da protagonista, Tolosan: babarruna. Babarrun Asteko ekitaldi nagusiak urteroko moduan, larunbatean izango dira, hau da, ekoizleen lehiaketa eta azoka berezia, baina honekin batera, herriko txoko askotan izango dira babarrun jateak. Igandean, Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoa izango da. 03

Anoetako dantzariak indar berria eman nahi diote taldeari

Izena eta irudia aukeratzeko lehiaketa antolatuta du dantza taldeak; azaroaren 19etik 30era aurkeztu ahal izango dira proposamenak 05

Tolosako eta Lizartzako ikasleen bideo bat, Udalsarea 21eko finalista

'Berandu baino lehen' izena du lanak eta Tolosako Hirukide eta Samaniego ikastetxeetako eta Lizartzako eskolako gazteek egin dute 06

Jonan Fernandez

Baketik fundazioko zuzendaria

«Normalean bakea ailegatzeko denean lasaitu egiten gara, bizikidetzaz ahazten gara»

Formazio ikastaroa emango du Tolosan, gaurtik aurrera

Elkarrizketa 07

Azaroaren 30a bitarte hiru film ikusi ahal izango dira Altzoko udaletxean

Ostiralean 'Urte Berri On Amona!' ikusi ahal izango da, azaroaren 23an 'Gazta zati bat' eta hilaren 30ean 'Sua'; 19:30ean eskainiko dituzte pelikulak 08

Xabier Olarra ◉ Itzultzailea eta idazlea

Bila ibili gabe iritsi zaio Xabier Olarrari, euskarazko literatura itzulpenaren Euskadi Saria. Arantzazu Royorekin elkarlanean itzuli du, 'Jakobian eraikina' obra egiptoarra, zuzenean euskarara.

«Poztuko nintzateke, literaturak bertsoak duen eragina eta indarra balu»

Itzea Urkizu Tolosa

Itzultzailea da ofizioz, Xabier Olarra (Tolosa, 1953), eta baita Igela argitaletxeko arduradunetako bat ere. Idazle lanetan hainbatean aritu den arren, «trebetasun hori oso gutxiren esku» dagoela dio berak, eta hizkuntza batean idatzirik dagoena beste hizkuntza bateko hitzunei helarazten, aski trebea dela erakutsi berri du.

Atzo jaso zuen, Euskarazko literatura itzulpenaren Euskadi Saria. Arantzazu Royorekin batera *Jakobian eraikina* arabieratik euskarara itzultzeagatik, eta literaturak gizartearen berak nahi lukeena baino eragin eskasagoa izanagatik ere, esku artean beti izaten du proiekturen bat.

Beste 28 lanen artean, zuena aukeratu dute. Nola hartu zenuen berria?

Batetik, harridura dezentearekin. Izan ere, 28 lan aurkeztu baziren, eta nik ez banekien zenbat ziren aurkeztuak, zergatik pentsatu behar duzu zuri eman behar dizutela saria? Finalistak hor egoiteak ere horixe adierazten du: zuri eman dizuten bezalaxe eman ziezaieketen beste horiei. Eta epaimahai batek zer egin dezakeen ez dago jakiterik. Guri, Philippe Claudel-en *Brodecken Txostena*, Itziar Diez de Ultzurrunek itzulia eta Igelak argitaratua, nobela gisa *Jakobian eraikina* adina gustatzen zitzaigun, edo are gehiago, baina, lehen esan bezala, auskalo zergatik aukeratu duen epaimahaiak *Jakobian eraikina*, eta ez *Brodecken txostena*. Guri, kasu honetan, Philippe Claudel beraren azken nobelaren pro-

mozioan dioena gertatu zaigu: *C'est en ne cherchant pas que tu trouves*. Bila ez ibiliz aurkituko duzula, alegia. Gu ez gara sariaren bila joan, baina, etorri denez gero, Arantzazu eta biok pozik gaudela ezin ukatu. Eta ez sariak emango digun diruagatik, beste-lako arrazoengatik, batez ere.

Nolatan aukeratu zenuten *Jakobian eraikina* itzultzeko?

Orain dela 10 urte argitaratutako nobela da. Nik orain dela hiruzpatalau urte irakurri nuen gaztelaniaz. Orain dela urte pare bat Mohamed Xukri-ren *Ogi hutsa* itzuli zuen Arantzazu Royok, eta Igela argitaletxeak argitaratu zuen. Harrera polita izan zuen liburua, arabieratik zuzenean euskaratzen zen lehen liburua zelako, besteak beste. Hari jarraipena eman nahian elkartu ginen Arantzazu Royo eta biok, eta aztertzen aritu ginen zein liburuarekin eman jarraipena hasiera xume hari. Bi genituen tiro-mugan: Mohamed Xukriren *Zamaan al akh-taa* (*Hutsegiteen garaia*), eta Alaa al Aswaniren *Jakobian eraikina*. Arantzazuk nahiago zuen Xukri-ekin jarraitu, egilea ezaguna zuelako, eta abar. Nik, ordea, Al Aswaniren obrak gure bildumetan lehenbailen leku bat izan behar zuela ikusi nuen. Hala, berak Xukriekin jarraitu du, eta nik Al Aswanirena hartu nuen, betiere, gero beraren gainbegiratuaz izango zuela jakinda.

Zein irakurleri zuzendua da?

Kontuan hartzen badugu 2002an herrialde arabiarretan Koranaren ondoren liburuak salduena izan zela, pentsa dezakegu mun-

du guztiari zuzendua dela. Egiptoko errealtatea ezagutu nahi eta turismo bidaietan erakusten ditudenarekin konformatu nahi ez duen edonorentzat egokia da.

Elkarlanean egindako itzulpena nolakoa izan da? Binaka lan egiteak alde onak eta txarrak ditu.

Bai, prozesua ez zen ohikoa izan, baina ez hain desberdina ere: niri egokitu zitzaidan 'asto lana' egitea, lanik zakarrena egin nuen. Abiapuntuko zirriborroa berari eskaini, eta berak findu, bukatu eta errematea eman zion, lana txukunduz. Azken emaitza, beraz, biona da. Eta bai, baditu alde onak eta txarrak, baina gure us-



Ez gara sariaren bila joan, baina etorri denez gero, Arantzazu eta biok pozik gaudela ezin ukatu»

«Itzultzailea ez dago autoreak idatzi duena hobetzeko; hark idatzitakoa du muga»

XABIER OLARRA
Itzultzailea

tez, kasu honetan, beharrezkoa zen elkarlanean aritzea.

Jatorrizko bertsoa arabierazkoa da, eta zuzenean itzuli duzue euskarara. Zailtasun bat izan al du hori zuzentzat?

Bai, noski, arabiera hizkuntza urruna da, eta ez gara hizkuntza horretan beste ingurukoetan bezain trebe aritzen. Horrek politikxeago eta hanka non jartzen genuen arreta handiz zainduz lan egitera behartu gaitu.

Epaimahaiak itzulpenak duen hiz-

↓ Iragarki laburrak

LAN ESKAERAK

Etxeko lanetarako. Etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume eskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. Interesa duen edonork, dei dezala honako telefono zenbakitara: 943 69 68 82 / 606 52 19 92.



ANDONI CANELLADA/ARGAZKI PRESS

ker a eder eta joria nabarmendu du; baita pertsonaien sarea josteko izan duzen modua ere. Literatura itzultzearen sekretuak badu zerbait sormenetik ere?

Bai, badu. Baina ez beti berdintzuzulgai guztietan. Sormen lanik garrantzitsuen, dena den, norberaren hizkuntzan ahalik eta testurik errazena, txukunena eta gozagarriena lortzea da. Ez dago beti filigranak egiten ibili beharrik.

Sormen hori, ordea, mugatu egin behar da autorearen estilora. Nolakoa izan da Egiptoko kulturaren sortutako lana euskal irakurleari zuzentzea?

Itzultzailea ez dago autoreak idatzi duena hobetzeko; hark idatzitakoa du muga eta xede. Eta bere meriturik handiena, hura ondo imitatzea da. Baina, aldi berean, itzultzailearen hizkuntzan molde egokietan ematea, noski. **Zu zeu, itzultzaile izateaz gain, idazlea ere bazara. Asmatuko al zenuke gustokoena aukeratzeko?**

Oso gutxi idatzi dut, baina bai, esan daiteke bizpahiru ipuin laburren 'idazle' ere bainaizela. Aukeratu behar izanez gero, esan behar dago norberak idatzitakoa poz handiagoa ematen duela: «Nik sortu diat mundu hau. Eta irakurleek aintzat hartu ditek gainera». Baina trebetasun hori oso gutxiren esku dago. Besteok, erdi mailako atseginbideekin konformatu behar izaten dugu; eta hor du, bete-betean, lekua itzulpenak.

Euskarara itzultako liburuek nolako harrera dute?

Oro har, eskasa; are gehiago, oso eskasa. Baina baita euskaraz sor-

tutako liburuek gehienek ere. Ez gara oso herri irakurzailea. Orain dela 25 urte, hiru tolosarrek eta iruindar batek Igela argitaletxea sortu genuenean, uste genuen egoera hori aldatuko zela. Zoritxarrez, ez da hala gertatu.

Igela argitaletxeko arduradunetako bat zara. Zein etorkizun ikusten diozu liburuari?

Liburuak aurrera jarraituko du, mende honetan bederen: diuzio formatuan ez bada, elektronikoa. Hemendik bi edo hiru mende gertatuko denaz orain eztabaidatzeak, berriz, ez du zentzurik.

Eta etorkizunera begira, euskal literaturak, ba al du eraginik gizartearen eta belaunaldi berriengan?

Zoritxarrez, gizartearen duen eragina ez da nik nahi nukeen adinakoa. Poztuko nintzateke, esate baterako, literaturak bertsoak duen eragina eta indarra balu. Baina ez dut uste hala denik.

Hizkuntza bateko hitzunik aberas-teko ezinbesteko tresna da literaturara?

Egia da literaturak ezinbestekoa izan behar lukeela herri baten bizimoduan, arlo materialelik kanpo ateratzeko adinako kementa izanez gero, behintzat. Baina, zoritxarrez, ez da hala gertatzen. **Saria jaso berri duzu, baina, aurrera begirako proiekturik baduzu eskuartean?**

Proiekturik ez dut falta, 10 urte, edo hiruzpatalau behintzat bai, kostako zaidan itzulpen bati ekin nion joan den ekainean. James Joyce-ren itzulpenari. Beraz, aspertuta egoteko aitzakiarik ez dut.

◉ tolosa@hitza.info

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Joxe Mari Aizega, Mari Karmen Iradi, Ibai Iriarte, Jose Antonio Garmendia eta Yolanda Artola, aurkezpenaren. ITZEA URKIZU

Tolosako urre beltzari gorazarre eginez, 20 babarrun ekoizle lehiatuko dira

Babarrunaren inguruko pintxo lehiaketa antolatu dute larunbatean, herriko zortzi tabernak

Itzea Urkizu

Udazkenarekin batera Tolosako eta inguruetak lurretan ereindako produkturik preziatuenaz gozatzeko garaia iristen da. Tolosako Babarrunaren Astea bihar bertan hasiko da, eta 20 babarrun ekoizle lehiatuko dira aurten, txapela eskuratzeko.

Zenbait berrikuntzekin dator 2012ko babarrunaren astea, eta horren erakusle izan da, egita-

raua aurkezteko aukeratu duten lekua: Basque Culinary Center. Bertako zuzendaria Joxe Mari Aizega, Tolosako Babarrunaren elkarteko lehendakaria den Mari Karmen Iradi, Tolosako alkatea Ibai Iriarte, Gipuzkoako Foru Aldundiko Jose Antonio Garmendia eta Tolosako Babarrunaren Kofradiako Yolanda Artola izan dira agerraldian.

«Babarruna kalitatezko produktua da, bertakoa ere bai, arretaz handiz egina, eta betikoa den arren, garai berriei ezin hobeto egokitua», nabarmendu du Ibai Iriarte Tolosako alkateak. Bide honetan, beraz, epaimahaikideen artean lehenengoz izango da, datorren larunbateko ekoizleen lehiaketan, Basque Culinary

Center-eko Joxe Mari Aizega. Halaber, Tolosako Frontoi jatetxeko Roberto Ruiz sukaldariak babarrunaren inguruan eskainiko duen ikastaroa ere aurtengo berrikuntzetako bat izango da, Tolosa & Co elkarteko zortzi tabernetan egingo duten pintxo lehiaketarekin batera. Bere aldetik, Aizegak, «horrelako produktu baten inguruan zerbait antolatzea, eta parte hartzea plazerra» dela nabarmendu du: «Gure zentroaren oinarrian euskal produktuak ditugu, eta berebizikoa garrantzia du Tolosako babarrunak».

20 ekoizleren aleak lapikoan Guztira, 20 ekoizleren babarrun aleak dastatu beharko dituzte epaimahaikideek, larunbatean.

Tolosako Babarrunaren elkarteko lehendakaria da Mari Karmen Iradi, eta baita ekoizlea ere, eta aurtengo eguraldi gorabeheratsua nabarmendu du: «Lehen ere izaten ziren lehortekak, eta babarrunarentzat ez da giro egokia». 25.000 kilo ekoiztea aurrekusi zuten arren, erdiera ere ez dira iritsiko dio; 10.000 kilo inguru ekoiztuko dituzte. «Hala ere, kalitate ezinhobea izango du aurtengo babarrunak, kantitate eskasagoa izango dugun arren», dio Iradi.

07:30ean jarriko dituzte sutan babarrunak, larunbat goizean. Fronton jatetxeko Roberto Ruiz, Astelena jatetxeko Peio Doyharzabal, Berrobiko Iriarte jatetxeko Felix Belaunzarán eta Lur laneko

Fede Pacha izango dira sukaldariak.

Baldintza beretan prestatuko dituzte babarrun guztiak, 11:30ak aldean epaimahaia bere jardunarekin has dadin. Basque Culinary Center-eko zuzendari Joxe Mari Aizega, Tolosako Babarrunaren

Eguraldia dela eta, 10.000 kilo bakarrik bildu dituzte, baina «kalitate onekoak»

Kofradiako Izaskun Domenech, eta Txaber Allue, Cristina Martinez eta Jesus Miguel Garcia blogariak izango dira, ekoizlerik onena nor izango den erabakitzeko ardura izango dutenak.

100 euro eta garaikurra eskuratuko ditu hirugarren postuan sailkatzen den ekoizleak, eta bigarrenak, berriaz, 150 eta garaikurra. 2012ko babarrun ekoizle onenak, 200 euro eta garaikurraz gain, txapela eskuratuko du.

Gainera, 13:15 aldera, babarruna irabazlearen 3 kiloko lakari bat jarriko dute enkantean.

Babarrunak herritar guztientzat Larunbateko azokarekin batera, igandeko lehiaketa gastronomikoa eta herri bazkaria izango dira, Babarrunaren asteko egitaraua borobilduko duten jarduerak.

Gure Kaiola elkarteak antolatuta, XXVI. Lehiaketa gastronomikoa izango da aurtengoa, eta hastapenetan, produktua ezagutarazteko eta ekoizleei babarruna landatzeko sustatzeko sortu zuten jardura. Floren Altuna eta Bixente Artola izan ziren iazko garaileak, Xepa elkartearen izenean.

14:00ak inguruan hasiko da bazkaria, Zerkausion. Otordurako txartelak elkartearen egoitzan bertan izango dira salgai, 19:30etik 21:00etara, eta igandean goizean bertan ere, Zerkausion eskuratuko ahal izango dira. 24 euroren truke, beraz, babarruna izango da protagonista Zerkausion mahaietan, azaz, odolkiak, txorizoak eta ibarrak langostinoez lagunduta.

↓ Egitaraua

AZAROAK 15, OSTEGUNA

- Pintxo lehiaketa Tolosa & Co tabernetan.
- Sukaltalkan ikastaroa babarrunaren inguruan, Roberto Ruiz sukaldariarekin, Zerkausion.

AZAROAK 16, OSTIRALA

- Hotel Londresen Babarrunaren aurkezpena Tolosako Babarruna Kofradiaren eskutik.

AZAROAK 17, LARUNBATA

- **07:30.** Tolosako Babarruna-

ren ekoizleen lehiaketaren hasiera, Trianguloa plazan.

- **09:00etatik 14:00etara.** Azoka Berezia, Trianguloa plazan.
- **10:30etik 13:30era.** Topagunean ludoteka zerbitzua.
- **10:30etik 15:30era.** Tolosako babarrunaren bidaia: Ereitetik platerera.

- **11:30.** Tolosako Babarrunaren Ekoizleen Lehiaketako epaimahaikideen lehiaketa, Trianguloa plazan.
- **11:30.** Txapela nork ondoen jantzi XIII. Lehiaketa, Txinparta elkartean.

- **12:00.** Tolosako Babarrunaren Kofradiaren eskutik, Tolosako babarruna jateko aukera izango da Trianguloa plazan.

- **13:00.** Tolosako babarrunaren ekoizleen lehiaketaren sari banaketa egingo dute, Trianguloan.
- **13:15.** Babarrun irabazlearen lakari bat enkantean aterako da, Trianguloa plazan.
- **17:30.** Pailazoak izango dira, Berdura plazan.

AZAROAK 18, IGANDEA

- **08:00.** XXVI. Tolosako Baba-

rrunaren Lehiaketa Gastronomikoa hasiera, Trianguloa plazan.

- **13:00.** Tolosako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoko epaimahaikideen lehiaketa, Trianguloa plazan.

- **14:30.** Herri bazkaria Zerkausion, Gure Kaiola elkarteak antolatuta.
- **16:30.** Tolosako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoko sari banaketa, Zerkausion.


AZAROAREN 16TIK 18RA

- Artisautza azoka egongo da

San Frantzisko pasealekuan. Ostiralean: 17:00etatik 20:30era. Larunbatean: 09:30etik 14:30era eta 17:00etatik 20:30era. Igandean: 11:00etatik 14:30era.

AZAROAREN 16TIK 25ERA

■ Liburu azoka egongo da, San Frantzisko pasealekuan. 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara bitarte izango da zabalik asteazken, eta asteburuetan ordu ederi gehiagoz zabalduko dute.



Hainbat paneletan Saharari buruzko informazioa ematen da erakusketan.



Sara Gomezen Margarita erakusketaren bi argazki. SARA GOMEZ



Saharari buruzko erakusketaren argazkietako bat. OTHMANE DEDAH

Zahartzaroa eta Sahara, argazkitan

Amezketako kultur astean, Sara Gomezen eta Othmane Dedahen erakusketak ikusi daitezke kultur etxean

Imanol Garcia Landa Amezketak

Erakusketek bere lekua dute Amezketako kultur astean. Aurretik, gainera, bi argazki erakusketaren artean dago kultur etxearen behe solairuan. Horieta-ko bat Sara Gomez amezketarra-

ren *Margarita* izenekoa da, eta bestea Ugarten bizi den Othmane Dedah sahararrak zintzilikatutakoak. Kultur asteak iraun bitartean, igandera arte, izango dira ikusgai.

Gomezek erakusketak bera Alegiako erretirodunen tabernan eta Idiazabalgo udaletxean jarri zuen, baina lehenengo aldian da herrian erakusten duena. «Zahartzaroari buruz egindako proiektu baten emaitza da», azaldu du Gomezek. «Nire amona erretiratu hartu nuen. Erorketa baten ondorioz mugikortasun gabe

geratu zen, eta bere eguneroko bizia erakusten da argazkietan. Mugikortasun falta horregatik etxe barruan egiten duen bizitza azaltzen da, txokoak eta bere oroitzapenak tartekatuta».

Gutzira hamalau argazki osatzen dute erakusketak. Beste urte batzuetan ere zintzilikatu ditu bere lanak. «Kultur astean herrikoiek egindako lanak eta hitzaldiak izan ohi dira», esan du Gomezek. Egun beste argazki erakusketak bat ere badu ikusgai argazkilariak herrian. *Aztarnak utziz* izena du eta Santio bidearen

inguruko argazkiak bildu ditu bertan. Txindoki tabernan ikusi daiteke, hil honetan.

Ostiralean egin zuten kultur asteko erakusketen inaugurazioa. Aurretik Saharari buruzko hitzaldia izan zen eta, hain justu, horixe da Othmane Dedahen erakusketaren gaia.

Batetik, Dedahek Mendebaldeko Sahararen egoeraren berri ematen du panel batzuen bitartez. Horrez gain, zenbait argazki jarri ditu, errefuxiatuen kanpalekuan ateratakoak.

Dedahek berak azaldu duenez,

«niretzako garrantzitsua mundu guztira sahararren borroka- ren mezua iristea da. Orain 40 urte Marokorekin borrokan gaudu. Sahara beste edozein herrialde bezalako da eta askatasuna behar du».

Luis Sagastumeren solasaldia

Kultur astearren barruan, gaur, 20:30ean eta kultur etxean bertan, Luis Sagastume mendizale amezketarrak aurretik Boliviararen egindako bidaiaren berri emango du. Horretarako argazki eta bideo emanaldia izango da ikusgai.

Anoetako dantza taldea, parte hartzea bultzatuz izen eta irudi bila

Lehiaketara herriarekin eta dantzarekin lotura duten proposamenak aurkeztea eskatu dute dantza taldeak

Asier Imaz Anoeta

Sei hamarkadako historia duen talde bati izena jartzea ez da erraza. Horregatik, hamaika buruhausteren ondoren, parte hartzean aurkitu dute irtenbidea Anoetako dantza taldeko kideek: «Dantza eskola indarra hartzen ari dela ikusirik, aurrera jarraitzeko eta talde izaera hori bermatzeko, izena eta logoa behar ditugula erabaki dugu. Hori dela eta, hausnarketa sakonak egin ondoren, izena eta logoa bilatzeko lehiaketa egitea bururatu zitzaigun».

Idea buruan, dantza taldeko kideak lehiaketaren oinarriak aztertzen hasi ziren. Asmoa egitasmo bilakatu ondoren, irudimena dantzan jartzeko garaia iritsi da, eta prozesu horretan, ahalik eta jende gehien laguntza nahi dute, ideiarekin bat duen oro parte hartzeri animatuz.

Lanak aurkezteko epea hilaren 19an zabalduko dute, 30ean ixteko. Irabazleak, Hernialdeko Elketa jatetxean bi lagunentzako afaria irabaziko du. Saria nor irabazi, epaimahaiko kideek erabakiko dute. Hauek, lau izango dira: Dantza Eskolako irakasle bat, dantzari bat, guraso bat eta Anoetako Udaleko Kultur zinegotzia. Epaimahaia erabakia aldaezina izango da. Antzeko lehiaketetan gertatzen den bezala, epaimahaia eman gabe utzi ahal izango du saria, aurkeztu diren lanek saria lortzeko kalitate nahikoa ez dutela uste badu, behintzat. Ho-

rrez gain, lau kide hauen epaia «aldaezina» izango dela azaldu dute Anoetako dantza taldeak.

Dantza eskolaren bilakaera

Lehiaketa aurkeztu diren lanek Anoetarekin eta dantzarekin zerikusia izatea nahi dute dantza taldeko kideek. Herriaren ezagutza etxeko lan bezala utzita, dantza taldearen ibilbidearen hasiera 1952. urtean kokatzen dute anoetarrek, Manuel Odriozola zenaren gerizpean: «Herrian bera hasi zen gaia mugitzen, dantza soka eta ezpata dantza erakutsiz 14-17 urte bitarteko gaztetxoek». 20 ikasle inguru izan zituen Odriozolak, bi taldetan banatuta. Lan horretan, 1970. urtera arte aritu zen anoetarra.

Tartean, 60. hamarkadan, Joxe Leon 16 ikasleekin aritu zen fandangoa eta arin arina erakusteko lanean. Zortzi neska eta zortzi mutilekin osatu zuen taldea Leonnek, 6-8 urte bitarteko haurren artean. Bi urte iraun zituen ekarpena izan zen hau.

1970. urtera itzuliz, zazpi urteko etenaldia aipatu behar da hemen. 1977an, ordea, orduko Eskola Publikoko irakaslea zen Tere Mozok, Manuel Odriozolaren lekukoa hartu zuen: «Herrian dantza suspertzeko, egun desagertua dagoen Arkaitz Tolosako dantza taldearekin hitz egin zuen Mozok. Horri esker, bertako irakasle batzuk Anoetan hasi ziren klaseak ematen. Zortzi urte inguru egon ziren hemen, 50 ume inguruko talde batekin». Hauetatik 20 mutilak eta 30 neskak zirela aipatzen dute Anoetako dantza taldeko kideek.

Arkaitzeko kideek utzi zutenen, Mertxe Allue anoetarra hasi zen klaseak ematen, eta ondoren, Miren Beraza eta Izaskun Goikoe txea.



Anoetako dantza eskolak 72 ikasle ditu; Mikelasagasti auditorioan elkartzen dira guztiak. HITZA

Naiara Yurrita, Amezketako bi dantzari, Villabonako Oinkari taldeak etorritakoak, Oinkari Txikikoak... Irakasleak joan etorriak ez zuen etenik, baina hori ere iritsi zen, hau da, Anoetako dantza taldearen bigarren geldialdia.

Bideari 2006an berrekin zioten anoetarrek, kasu honetan, Ibarrrako Alurr dantza taldeko irakasleekin. «Urteak igaro ahala, dantza eskolak gora behera erakusten izan ditu, baina gaur egun berreskuratzea lortu dugu», diote taldeko kideek.

Egun 72 dantzari elkartzen dira Mikelasagasti auditorioan, Alurrrako sei irakasleekin, horietatik bost anoetarrek dira. 45 haur daude hiru taldetan banatuta; gaztetxoak, berriz, 12 dira, eta helduen taldean 15 lagun daude. Guztiak osatzen dute izen eta logotipo bila dabilen Anoetako dantza taldea.

Zer egiten duten galdetuta, urtean zehar hamaika emanaldi eta entsegu egiten dituztela diote dantza taldeko kideek, indarra hartzen ari direnaren adierazle: «Ikasturtean zehar, inguruko herrietako dantzari txikiak josten gara haur txikiarekin. Herri mailan, Dantzari Txiki Eguna antolatzen dugu, eta ikasturte amaieran dantza emanaldi handi bat egiten dugu, haur, gaztetxo eta helduekin. Horrez gain, Euskal Jaia, San Joan bezpera, Gabonak...» Etenik gabeko zerrendak jarrai dezala!

Lehiaketaren oinarriak

BALDINTZAK

- Lehiaketa pertsona fisikoek erabiliko dira, edozein emanaldi nahiz lanetan.
- Izena: Anoetako herriarekin eta era berean dantzarekin zerikusia duena izango da. Izenarekin batera, proposamenaren zergatia biltzen duen azalpen laburra erantsiko da.
- Logotipoa: Paper euskarrian 10cmX10cm, edo euskarri digitaletan, JPG formatuan, aurkeztu behar da.
- Izena edo logotipoa bakarrik aurkezteko aukera dago.
- Lanak eta egilearen datuak gutun azal itxi batean sartuko

dira. Gutun azalaren kanpoaldean, egilearen goitizena idatzi behar da.

- Lanak aurkezteko epea 2012ko azaroaren 19tik 30era izango da.
- Lanak udaletxean utzi edo anoetakodantzataldea@gmail.com helbidera bidaliko dira.
- Izenarekin batera, proposamenaren zergatia biltzen duen azalpen laburra erantsiko da.
- Pertsona bakoitzak bi lan aurkeztu ahal izango ditu.
- Informazio gehiago nahi izanez gero, dantza taldearen emailera idatzi behar da.

SARIA

- Hernialdeko Elketa jatetxean bi lagunentzako afaria.



sarrerak

zozketa

“Frankismoaren aztarnak arakatzen”
liburuaren bi ale

hitza

Zozketan parte hartzeko deitu osteguna 14:30ak baino lehen 943 65 56 95 telefono zenbakira.

Trintxerpetarra abesbatza ariko da, Alegian

Larunbatean 19:45ean izango da kontzertua Alegiako elizan; estilo askotako kantak abestuko dituzte

Nerea Pikabea Alegia

Trintxerpetarra abesbatza sortu berria da, eta larunbatean, hilak 17, Alegian izango da. 2011ko iraillean eman zituen lehen pausoak, Ilunbe abesbatzatik bereizi ostean. Manuel Beltranek zuzentzen du koria, eta esperientzia zabaldu du Beltranek, 28 urte eman baititu Ilunbe abesbatza zuzentzen.

Trintxerpetarra abesbatzaren emanaldia 19:45ean izango da,

Alegiako elizan. Musika sakratuarekin ekingo diote kontzertuari. Bi abesti gregoriano eskainiko dituzte hasieran. Ondoren, Tomas Luis de Victoria Errenazimenduko musikagilearen *Ave Maria* abestuko dute, baita Mozarten *Ave Verum* obra ezaguna ere.

Nola ez, hainbat euskal doinu ezagun ere abestuko dituzte: *Gozian argi hastian*, *Ikusten duzu*, *Boga boga* eta Pablo Sorozabalen *Maitte*. Estiloz erabat aldatuko dute kontzertu amaieran, horien artean hainbat habanera kantatuko dituzte. Esaterako, Lopez Buchardo argentinarren *La canción del carretero*. Ondoren, Tomas Garbizu konpositore gipuzkoarraren *Navegaremos los*



Trintxerpetarra abesbatza sortu berria, Manuel Beltranek zuzentzen du. HITZA

dos habanera abestuko dute. Segidan, Peruko herri abesti bat, *La flor de la canela* izenekoa. Goldsmithen *Folias* obra ere eskainiko

dute, eta amaitzeko, Carlos Cano Granadako abeslariaren *Habanceras de Cadiz* doinua entzuteko aukera izango da.

Herritar guztiak gonbidatu dituzte emanaldiaz gozatzen. Kontzertuaren ondoren, afari legea egingo dute Intxurre elkarteak.

Diabetikoek ere pastela jan ahal dute, 'Pastelak' elkarteari esker

Tolosako Rafa Gorrotxategi da taldeko partaidetako bat; sortu duten gozo berriak 14-N du izena

R. C. Tolosa

Gaur, Diabetearen Aurkako Nazioarteko Eguna da, eta Pastelak elkarteak, diabetikoek jateko moduko den pastela prestatu dute. Pastelak elkarte sortu berriko kide da Rafa Gorrotxategi gozogile tolosarra.

Sortu berri duten pastelak, ez du azukre gehigarriarik izango, eta 14-N izena jarri diote. Gaurtik aurrera salgai jarriko dute, eta gozo honekin lortutako diruaren zati bat Gipuzkoako Diabetikoek elkartearentzat izango da. 14-N gozoa urtean zehar ere salduko dutela iragarri dute.

'Berandu baino lehen' bideoa, Udalsarea 21eko finalistaren artean

Tolosaldea Garatzenek eta Eskola Agenda 21ek egin dute bideoa, Tolosako eta Lizartzako ikasleekin

Rebeka Calvo Tolosa

Bi urteroko moduan, Tokiko Jasangarritasunerako Jardunbide Egokien Udalsarea 21 Sariak, euskal udalerriek jasangarritasunaren alde egindako lana aitortu nahi dute. Laugarren edizio honetan 15 finalista izan dira, eta horien artean dago, hain zuzen ere, Tolosako Hirukide eta Samaniego ikastetxeetako eta Lizartzako eskolako ikasleek egindako *Berandu baino lehen* bideoa. Heziketa mailan geratu da finalista.

Aurten 20 urte bete dira Rio de Janeiron (Brasil) egindako Lurra-ren Konferentzia ospatu zenetik. Eta aitzakia hori hartuta, Tolosaldea Garatzenek eta Eskola Agenda 21ek ikasleekin bideoa egitea

erabaki zuten. *Berandu baino lehen* bideoan, ikastetxeetako hainbat neska-mutilek, 1992an Rio de Janeiroko konferentzian Severn Suzuki 13 urteko neskatok munduari bira eman zion hitzaldia errezitatzeko dute, tartean gure inguruko ingurumenarekin zerikusia duten irudiak tartekatuz.

Finean, ikasle guztiak ordezkatzen dituzten eta bideoan agertzen diren haurrek, ingurumenaren babesean hitzetatik ekintzetara pasatzeko eskatzen diete helduei, eta bereziki, erabakiak hartzen dituztenei.

Sentsibilizazioa helburu

Bideo honen helburu nagusia eskualdeko herritarren sentsibilizazioa izan da. Tolosaldeko gazteek, udalei, helduei eta herritarrei, 1992. urtean eginiko hitzaldia gaur ere oraindik indarrean dagoela adierazi eta ingurumenaren babesean hitzetatik ekintzetara pasatzeko eskatzen diete.

Esan beharra dago, Tolosaldea Garatzen eta udalez gain, proiektu

honetan beste erakunde batzuk ere partu hartu dutela, hala nola, Tolosako Ingurumen Zentroa eta Tolosaldeko ikastetxeak.

Beste behin ere, Tokiko Jasangarritasunerako Jardunbide Egokien Udalsarea 21 Sariak oso parte-hartze altua lortu dute, gutxira 41 hautagaizta aurkeztu baitira sarietara, bai banakakoak bai taldekakoak. Hautagaizta horietan, gutxira, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 86 udalerrik parte hartu dute.

Sariak, hilaren 21ean, Donostiako Kursaal jauregian egingo den ekitaldian banatuko dituzte. Euskal udalerrien Tokiko Agenda 21en bederatzigarren jardunaldia izango da.



■ **Bideoa.** Ikusi eskualdeko ikasleek egin dute *Berandu baino lehen* bideoa QR kode honen bidez.

II. Begiradak zinema emanaldian, 'Urte Berri On Amona!' filma

Altzoko Elordi Kultur eta Kirol elkarteak bigarren urtez antolatuko du; emanaldiak ostiraletan izango dira

R. C. Altzo

Altzoko Elordi Kultur eta Kirol elkarteak II. Begiradak zinema emanaldiak antolatuko ditu. Emanaldiak ostiraletan izango dira, 19:30ean, udaletxean.

Lau film ikusteko aukera eskaini dute eta lehena, ostiral honetan bertan, *Urte Berri On Amona!* filma izango da. Hilaren 23an, 19:00etan, *Gazta Zati Bat* dokumentala izango da, eta ondoren, Elordi elkarteak, bertso afaria egingo dute Jon Maia eta Amaia Agirre bertsolariekin. Hilaren 21a baino lehen izena eman behar da. Hilaren 30ean, *Sua* izango da.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

Jonan Fernandez ◊ **Baketik fundazioko zuzendaria**

Bizikidetzeta eta berradiskidetzeari buruzko formazio ikastaroa hasiko da gaur arratsaldean, Tolosako kultur etxean; Baketik fundazioak antolatuta du Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin.

«Indarkeria amaitzea ez da nahikoa, bizikidetzeta kultura sustatu beharra dago»

Iñigo Terradillos Tolosa

Bizikidetzaren ikuspegi eraikitzailea partekatu eta bultzatzea helburu duen formazio ikastaroari ekingo zaio gaur Tolosan, Baketik fundazioak antolatuta eta Gipuzkoako Foru Aldundiak babestuta. Kultur etxean izango da, hirurasteazkenetan banaturik, 18:30etik 21:00etara. Tolosa bezala, Arrasaten, Eibarren eta Donostian ere emango dute ikastaroa, eta doan izango da. Lehenengo bietan Pello Sarasuak emango du, eta beste bi herrietan, Jonan Fernandez (Tolosa, 1962) Baketikeko zuzendariak. Berradiskidetzeta kultura bultzatzen laguntzea da asmoa, eta horretarako, gizartearen erantzukizunaren bat duten 100 lagun ingururi formazioa eman nahi diote.

Zein testuingurutan kokatu behar dugu formazio ikastaroa?

Duela urtebete inguru ETAk bere adierazpena egin zuen, eta hortik aurrera prozesu bat irekitzen da, bake prozesu bat. Guk azpimarratzen duguna da gauzak benetan aldatu ahal izateko eta bakea sendotzeko ez dela nahikoa biolen-

tzia amaitzea, gauza gehiago behar dira. Esaterako, bizikidetzeta kultura berri bat sustatu behar da.

Urtebete baino gehiago igaro da ETAk jardueraren armatua utzi duela iragarri zuenetik. Epe honetan mugimendu gehiegirik izan ez denaren zantzua dago.

Ez da mugimendurik egon. Baina, urtebete baino ez da igaro. Gainera, urtebete honetan hauteskundeak ere izan ditugu tartean. Azken hauteskundeak igaro direnean, orain baldintza egokiagoak ditugu gauzak mugitzen hasteko, eta hori da gure itxaropena. Arlo guztietan egon behar du mugimendua, hezkuntzan, gizarte arloan, politikan... Orain da unea. Bere horretan uzten badugu, gauzak okertu eta usteldu egingo dira, eta hori ekidin behar dugu. Honek guztiak bukaera ona izatea nahi du gizarteak, hori ikusi dugu hamabi hilabete hauetan. Gertatzen dena da, baita ere, krisi larria bizi dugula, eta kezka asko horra zuzentzen direla. Baina, une historiko zail bezain garrantzitsua eta erabakiorra bizi dugu.

Zer da kontuan hartu beharko litzatekeena lehendabizik?

Hamarkada ugari daramatzagu giza eskubideen eta bortxaketen artean, biolentziaren artean, zatiaketen artean, eta hori guztia gure gizartearen esperientzia traumatikoa izan da. Iragan horri heldu egin behar zaio etorkizuneari gauzak beste era batera egiteko. **Beste bake prozesuetan jarraitu duten bideak aztertu al dituzue?**

Bake prozesuetan ikusi eta esan digutenaren arabera zera esan dezakegu, normalean indarkeria amaitzen denean edo bakea ailegatzat denean erlaxatu, lasaitu eta poztu egiten garela, eta bizikidetzaz ahaztu egiten garela. Gero, hamar edo hamabost urte pasatzen dira, eta ondorio txarrak edo negatiboak agertzen hasten dira, eta orduan konturatzen gara ez genuela egin bere garaian egin behar zena. Hori toki askotan azaldu digute. Orain da bizikidetzaren inbertsio handi bat egiteko unea. Bai hezkuntza aldetik, bai eta herrietan bizi den giroari dagokionez.

Baina, posible al da gatazka batean areritza izan zirenak adiskide izatea?

Baketik fundazioko Marina Bidasoro eta Jonan Fernandez. A. C. / ARGAZKI PRESS

Berradiskidetzak ez du esan nahi denak lagun edo adiskide izan behar dugunik. Pertsonen arteko errespetua izango dela balore nagusia esan nahi du. Orain arte etsai bezala ikusi badugu elkar, aurrerantzean bizilagun bezala ikusi beharko genukeela elkarren burua.

Gizarteari hori egiten irakastera bideratuta dago ikastaroa.

Bai. Horretarako, hainbat ataletan banatu dugu gaiaren arabera. Lehenengoan pertsonaren gaia jorratuko dugu. Zer den pertsona bizikidetzaren aurrean aztertuko dugu. Bigarren gaia gatazka da. Bizikidetzaren aurrean gatazka daude, eta hauean aurrean, giza duintasuna bermatzeko nola jokatu behar dugun jorratuko dugu. Hirugarrena berradiskidetzeta izango da. Arazo larri edo gatazka bat izan dugunean zer egin behar den gauzak bere onera etortzeko ikusiko dugu. Behin hori guztia jorratuta, parte hartzaileei lan bat egiteko eskatuko zaie, herri edo hezkuntza mailan, eremu soziopolitikoan edo elkarte eremuan erabilera izango lukeena. Eta, azkenik, bai Tolosan, bai eta

↓ Datuak

- **Bizikidetzeta ikastaroa.** Tolosako kultur etxean, azaroak 14, 21 eta 28an, 18:30etik 21:00etara. Abenduan lan bat egin beharko da, eta ondorioak aztertuko dira.
- **Izen ematea.** Doan da. Gaur, 17:00ak arte egin daiteke, Baketik-era deituta, 943 25 10 05 zenbakira.

Donostian, Arrasaten eta Eibarren parte hartu duten guztiak, bilkura bat egingo dugu. Batez ere, hezkuntzaren gaia jorratuz, ondorioak partekatuko ditugu.

Nori zuzendua dago ikastaroa?

Ikastaroa irekia eta doakoa da, eta gaiarekiko interesa duen edonori zuzendua dago. Hori bai, oso aproposa izan daiteke hezkuntza lana egiten dutenentzat edo gizarte ardurarik duten herritarrentzat, hala nola, zinegotziak, teknikariak, erakunde bateko partaideak edota elkarte bateko kideak. Azken batean, edozein lan kolektibo egiten dutenentzat da interesgarria.

→ Laburrak**Felix Urrestarazuren lanak, Ibarako kultur etxean**

IBARRA ◊ Felix Urrestarazu ibarraren margolanak daude ikusgai Ibarako Benito Izagirre kultur etxean. 20 margolan inguru jarri ditu, errealsmotik, abstraktura, teknika eta material ugari erabiliz egindakoak. Azaro osoan zehar bisitatzeko aukera izango da.

KZgunea berri ere zabalik, gaurtik aurrera

IBARRA ◊ Ibarako KZgunea berri ere martxan jarri dutela jakinarazi dute. Hain zuzen ere, gaurtik aurrera zabalik egongo da, eta azaroan zehar ostegunero irekiko dute, 09:00etatik 13:00etara.

Erretirodunen eguna ospatuko dute igandean

BELAUNTZA ◊ Datorren igandean, hilaren 18an ospatuko dute erretirodunen eguna Belauntzan. 12:00etan meza izango da. Ondoren, toka txapelketa egingo dute, eta 14:00etan bazkaria egingo dute Ostaturan, bertsoarietako Evaristo akordeoi jotzaileak girotuta. Arratsaldean, berriz, sari banaketa egingo dute. Bazkarira joan nahi dutenek udaltxearen eman beharko dute izena.

Herriko tabernaren inaugurazio festa, etzi

BELAUNTZA ◊ Herriko tabernaren arduradun berria Iñigo Gorriti izango da. Inaugurazio bezala, etzirako pintxo festa antolatuta dute, 19:00etatik aurrera, Pagadi trikitilariak alaiturik.

‘Barrura begiratzeko leihoak’ dokumentala, ikusgai, Leitzan**I. Terradillos** Leitzan

Barrura begiratzeko leihoak dokumentala ikusteko aukera izango da asteburu honetan Leitzako zineman. Hain zuzen ere, etzi, 22:30ean izango da ikusgai, eta igandean, 19:30ean. Ohi bezala, 6 euro ordaindu beharko da filma ikusteko.

Euskal presoaren inguruan bost zinegilek egin duten dokumentala da. Leitzako emanaldian bertaratzen diren herritarrek filmaren egileekin nahiz protagonistekin hitz egiteko aukera izango dutela azaldu dute antolatzaileek.

Haur eta gaztetxoek I. Sokatira Txapelketa antolatu dute Ibaran

Azaroaren 25ean izango da, eta 8 eta 14 urte bitarteko Ibarako gaztetxoek parte hartu ahal dute

I. Terradillos Ibarra

Ibarako Sokatira taldeak haur eta gaztetxoek zuzendutako I. Sokatira Txapelketa antolatu du. Hauspoa elkarrekin azaroaren 25ean egingo duen babarrun jatearen barruan egingo dute, Bela-bieta kiroldegian, 11:00etatik 13:00etara.

Ibarako gaztetxoek hartu

ahalko dute parte bi mailatan banatuta: batean, 8 urtetik 10 urtera bitarteko haurrak sartuko dira. hau da, LH3, LH4 eta LH5eko ikasleak. Bestean, 11 urtetik 14 urtera bitartekoak sartuko dira, LH6, DBH1, DBH2 eta DBH3ko ikasleak.

Taldeak zortzi kidez osatuko dira, lau mutil eta lau neska, eta pisuaren arabera orekatuko dira. Parte hartzaileek kirol oinetakokak eta gerrikoa eman beharko dituzte.

Parte hartu nahi dutenek Uzturne ikastolan, Ibarako kultur etxean eta Zubiaurre eta Sendi Ekintza tabernetan eman ahal dute izena.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernalde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

«Lotsa galdu» eta kirola kalean egiteko apustua egin dute Tolosan

Emakume talde bat astean bitan geratzen da, Berazubin, kirola egiteko; Itsaso Leunda da entrenatzailea

rola kalean egiteko bultzada ematea da helburua», azaldu dute. Itsaso Leunda triatolaria da prestatzailea, eta maila guztietako jendeak parte hartzen duela azaldu du: «Entrenamendu pertsonalizatuak prestatzen ditugu, eta hiru maila egin ditugu. Horrela, edonork parte har dezake».

Korri egin nahi duten emakumeek, beraz, Berazubi estadiora

azaltzeko aukera dute, asterte eta ostegunetan, 19:30ean, ordu beteko saioak egiteko.

Bere aldetik, Aitor Odriozola babesleak, honakoa azaldu du: «Helburua emakumeak kirola egin dezaten animatzea da. Bizi osasuntsu batek gure irudia ere hobetu egiten du, eta guk edertasuna eta osasuna batera ikusten ditugu».

Itzea Urkizu Tolosa

Korri egitea gero eta sustraituago dagoen ohitura da. Joera honi jarraiki, Tolosan emakume korrikalarien Honekin taldean aritzen dira hamabost emakume inguru.

Behobia-Donostia lasterketan parte hartzen zuten emakumeen portzentajea Europako gainerako lasterketetako baino baxuagoa zela eta hasi ziren emakumeak kalera kirola egitera irteteko jarduerak abiarazten. Pasa den Behobia-Donostia proban taldeko bost korrikalarik hartu zuten parte.

Horrela, emakume korrikalari zenbait asteartero eta ostegunero elkartzeko dira, Berazubi estadiora. «Lotsa alde batera utzi, eta ki-



Honekin taldearen aurkezpena egin berri dute, Usabalen. I URKIZU

Agenda

DEIALDIAK

- **Tolosa.** TOPIC zentroan, gaur, 20:00etatik aurrera, Berdinbidek (Berdintasunaren Alde eta Genero Indarkeriaren Kontrako Gizonen Elkarte) antolatuta *Maite al du Jesusek Emakumea?* hitzaldia Jose Antonio Pagolaren eskutik. Hitzaldia Antxon Bandres euren lehendakariaren omenez antolatu dute.
- **Villabona.** Acabe elkarteak, anorexia eta bulimiari buruzko hitzaldia eskainiko du, gaur, 19:00etan, erabilera anitzeko gelan.
- **Anoeta.** Kultur eta Kirol Astearen barruan, gaur, 18:00etan, mus, domino eta tute txapelketak erretirodunen egoitzan. Era berean, larunbatean herri krosa egingo dute DBH3tik aurrerako gazte eta helduentzat. 11:30ean irtengo dira plazatik eta izena azaroaren 15a baino lehen eman behar da. DBH3 eta DBH4ko ikastolan eman behar dute izena eta gainotzekoek kiroldegian. Egunean bertan ere izena eman ahal izango da.
- **Aduna.** Kultur ekitaldien ba-

rruan, gaur, 17:00etan Elordi plazako aretoan, Gurutz Garmendia ipuin kontalaria izango da, *Euskal mitologiaren ipuinak* emanaldia eskainiz; eta 19:30ean, kultur aretoan, Anitzak taldeko Haizea Arruti eta Bai Euskal Herriari taldeko Mikel Luloaga ariko dira *Anitzasuna eta Migrazioa* hitzaldia eskainiz.

- **Armezeta.** Kultur astearen barruan gaur, 20:30ean, *Bolivia 2012* lana Luis Sagastume mendizalearen eskutik, kultur etxeko aretoan.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Egunkoia eta gaueko: Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia 5. Telefonoa: 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Mauka GAURKO ESKAINTZA

Ekialdeko masajea aukeran

SPA ORIENTAL

Prezioa **39€**

www.mauka.eu

berria

Agurrak

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

●●●● agurrak

Egin HITZAKo harpidedun azaroaren 30a baino lehen

eta jaso Mahala baserriko produktuez osatutako saski ederra

OPARI



eta...

... HITZAKen harpidedunen artean bi pertsonentzako harri bolkanikodun masaje geotermala (30') + jacuzzi sesioa zozkatuko dugu



hitza info

harremanetarako:
902 82 02 01
harpidetza@hitza.info